Tinko heltzen dizut

Oihana Sanz Ruiz De Onraita
Adopzio-ama 2013tik
Semearen jaioterria: adopzio estatala

Zure eskua nirean…
tinko heldu zenion, konfiantzarik ez oraindik,
eutsi behar zizuten eskuek ez baitzizuten eutsi
eta utzi baitzizuten zauri bat sakona.
Zure eskua nirean…
tinko heldu zenion beldurren lainotzarrek
ezkutatu zutenean oharkabean zenekarren eguzkia eta
uhertu zizkizutenean ametsak.
Zure eskua nirean…
tinko heldu zenion munduak ulertzen ez zintuelarik,
jakin gabe zure minaren iturria ez zela zeure baitako ezer
baizik zuk merezi gabe bizitza ostu zizuna.
Zure eskua nirean…
tinko heldu zenion hartu zenuelarik ardura
zeuk aukeratua ez zenuen guztiarena, besteren erabakiena
gaizki hautatutako tatuaje baten gisan bizitza markatuko zizuten erabakiena.
Zure eskua nirean…
tinko heldu zenion ikasi zenuenean zeure burua defendatzen

ohartu aurretik erasoak ez zebilzkizula atzetik.
Sutura izateko jolasean zebilen oskol bat bihurtu zen ezkutua.
Zure eskua nirean…
tinko heltzen dizut, eta eusten, nahiz eta zuk arbuiatu
etxeratzen zarenean egun txar baten ondoren
eta nire besarkada behar izanik ere hasten zarenean
bestelako botikaren baten bila.
Zure eskua nirean…
tinko heltzen dizut nahiz eta gaur zure eskua den
nirea baino handiagoa
bai baitakit oraintxe behar duzula gehien.
Zure eskua nirean…
tinko heldu zenion beharbada artean merezi ez nuelarik
tinko heldu nizun atzoko kaosean,
tinko heltzen dizut gaurko denboralean,
eta gogoan izan: eutsiko dizut bizi naizen artean.

